



**ERABAKIA, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx JAUNAK ARABAKO ESGRIMA
FEDERAZIOAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN 2016KO
ABENDUAREN 23KO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO
ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 44/2016

AURREKARIAK

Lehena.- 2016ko abenduaren 26an, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, Gasteizko Sala de Armas (aurrerantzean SAARVI) esgrima-klubeko presidentek, Arabako Esgrima Federazioak Klub horri ezarritako «zigor» gisa kalifikatzen duen kautelazko etete-eskaera aurkeztu zuen Kirol Justiziako Euskal Batzardearen aurrean.

Kirol Justiziako Euskal Batzardeak eskaera izapidetzea onartu zuen, eta Arabako Esgrima Federazioari bideratu zitzaion, 5 egun balioduneko epean, hark ezarritako «zigorraren» inguruko informazioa eta kasuan kasuko alegazio-idazkia aurkez zitzan, eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituen frogaeinbideak proposa zitzan. Arabako Esgrima Federazioak ez zuen gaiaren inguruko adierazpenik egin.

Bigarrena.- 2017ko urtarrilaren 2an, xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, SAARVI esgrima-klubeko presidentek, errekurtsoa aurkeztu zuen Kirol Justiziaren Euskal Batzardearen aurrean, Arabako Esgrima Federazioaren Zuzendaritza Batzardearen 2016ko abenduaren 23ko erabakiaren kontra, eta, haren bidez, SAARVI Klubari 2016-2017 denboraldian zehar lehiaketak antolatzeke eskumena baliogabetzea erabaki da.



Hirugarrena.- Klub errekurtsogileak Kirol Justiziako Euskal Batzardeak gaian esku har zezala eskatu zuen, horrela, Arabako Esgrima Federazioaren Zuzendaritza Batzardeak Klubari ezarritako zigorra baliorik gabe utz zezan. Izan ere, zigor horren bidez 2016-2017 denboraldian zehar txapelketa ofizialak antolatzeko gaitasuna kentzen zaio klubari. Era berean, zuhurtasunezko zigorra eten zezala eskatu zitzaion, zehapenaren zuhurtasunezko zigorra Arabako Esgrima Federazioari nahiz SAARVI klubari lehenbailehen jakinaraziz.

Laugarrena.- SAARVI Esgrima-klubak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Arabako 2. Liga Txapelketa 2017ko urtarrilaren 21ean eta 22an ospatu behar zen. Txapelketa-egunaren gertutasuna dela-eta, eta errekurtsoren barruraino sartu gabe, 2017ko urtarrilaren 19ko akordio bidez, Kirol Justiziaren Euskal Batzardeak Arabako Esgrima Federazioaren Zuzendaritza Batzardearen 2016ko abenduaren 23ko erabakiaren exekuzioa baliogabetzea erabaki zuen, SAARVI Klubari 2016-2017 denboraldian zehar lehiaketan antolakuntza baliogabetzea erabaki zuena, alegia.

Arabako Esgrima Federazioak Kirol Justiziako Euskal Batzardearen erabakia gauzatu zuen, eta 2017ko urtarrilaren 19an bertan hartutako zuhurtziazko zigorra jakinarazi zien klub guztiei, posta elektronikoko bidez.

Bosgarrena.- Bestalde, Kirol Justiziako Euskal Batzardeak SAARVI esgrima-klubeko lehendakari **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak 2017ko urtarrilaren 2an aurkeztutako errekurtsoa izapidetzea erabaki zuen. Horrela, bada, errekurtsoa Arabako Esgrima Federazioari helarazi zitzaion, 15 egun balioduneko epean, hark espediente osoaren fotokopia konpultsatua eta kasuan kasuko alegazio-idazkia aurkez zitzan eta, hala badagokio, egokitzen jotzen zituen frogagina proposa zitzan.



2017ko otsailaren 1ean, Arabako Esgrima Federazioak aurkeztutako dokumentazioa jaso zen (82898 zenbakia) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurso hau aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak (138.c artikuluan) eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak (3.c artikuluan).

Bigarrena.- Gasteizko Sala de Armas de Vitoria esgrima-klubeko (aurrerantzean, SAARVI) lehendakari errekurtsogileak eta Arabako Esgrima Federazioak (AEF) aurkeztutako dokumentazioa azertu ostean, errekurtsogileak zigortzat kalifikatzen duena, benetan, indarrean den araudiaren aplikazioa dela egiaztatu da, eta, beraz, ez da zigor bat, errekurtsogileak berak berresten duen moduan eta honako arrazoi hauek direla eta:

a) Errekurtsoaren arabera, SAARVI kluba zen Arabako 1. Eskola Liga Txapelketaren eta Arabako Esgrima Ligako 1. Txapelketaren antolatzailea. Bi alderdiek aurkeztutako dokumentazioaren eta alegazioen arabera, behar bezala egiaztatu da, SAARVI klubaren aldetik, bi ez-betetze egin zirela txapelketa horiek antolatzeko orduan:

- Eskola Ligako 1. txapelketan, frogen emaitza batzuk eta AEFri helarazi beharreko lehiaketaren akta falta dira.
- Arabako Ligako 1. txapelketan, txapelketaren deialdia bidali zitzaion AEFri, araudiak zehazten duen 4 asteko epea baino astebate beranduago.



b) Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko (aurrerantzean, 16/2006 Dekretua) 8. artikulua arabera, *lurraldeko federazioek euren kirol modalitateari dagozkion lurralde-eremuko kirol-jarduera eta -lehiaketak bultzatzen, kalifikatzen, baimentzen, arautzen eta antolatzen dituzte.*

Lurraldeko federazioek dituzten funtzioen barnean, 16/2006 Dekretuaren 12. artikulua honako hauek aipatzen ditu berriz ere: kirol-jarduera federatua antolatzea euren lurralde-eremuan; lehiaketa ofizialak antolatzea; parte hartzeko eta lehiatzeko euren arauak ezartzea; eta abar.

16/2006 Dekretu horretako 14. artikulua arabera, *beste funtzio batzuez gain, Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek **administrazio-funtzio publikoak** betetzen dituzte, eta, halakoetan, dagozkion administrazioaren agente laguntzaile gisa jarduten dute.*

Zentzu horretan, honako hau zehazten da artikulua horretan: *dagozkion administrazioaren irizpidearen, babesaren eta kontrolaren pean, kirol-federazio horiek honako administrazio-funtzio publiko hauek betetzen dituzte, eskuordetzan: a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, arautzea, antolatzea eta baimentzea.*

Arabako Esgrima Federazioaren Arabako Lehiaketa Ofizialen araudian, honako hau dio hirugarren artikulua: klubek lehiaketa ofizialen antolakuntza eskatu ahal izango diote Arabako Esgrima Federazioari eta, jasotako eskaeren arabera, Zuzendaritza Batzordeak antolatu beharreko eskola-lehiaketak edo lehiaketa federatuak nola banatu proposatuko du; gero, Batzar Nagusiak banaketa berretsiko du, egutegia onetsi ostean.



Hori guztia dela-eta, AEF administrazio-izaera duten funtzio publikoak betetzen ari dela esan genezake.

c) SAARVi klubak egindako irregulartasun bakoitzari aplikatu beharreko araudiari dagokionez, eskola-ligaren kasuan araudi aplikagarria Esgrima Eskola Kirolaren erregelamendua izango litzatekeela adierazi behar da (2016-2017 denboraldiko lehiaketaren araudia). Erregelamendu horretako 6. artikuluekin bat etorriz, AEFren araudia izango da erregelamenduan arautzen ez diren alderdiak arautzeko araudi gehigarria. Bestalde, ez da AEFk lehiaketa bakoitzaren ostean aurkeztu beharreko dokumentuen inguruko ezer arautzen.

Arabako Ligari dagokionez, AEFren Erregelamendua da araudi aplikagarria. Erregelamendu horren 3.4.e) artikulua arabera, erakunde batek (kluba edo federazioa) edozein lehiaketa ofizial antolatzeko, «deialdiko datuak bidali beharko dizkio (lehiaketaren eguna, ordua, lekua eta kategoriak) AEFri, gutxienez, lehiaketarako aurreikusi den asteburua baino lau aste lehenago. AEFk deialdia onartu beharko du, eta hura Arabako klubei bidaliko die. Lehiaketa irekia izanez gero, erakunde antolatzailea arduratuko da deialdia Arabakoak ez diren klubei bidaltzeaz (...)».

AEFren Erregelamenduko 9. artikuluan zehazten den moduan, Araban antolatzen diren lehiaketa ofizialetako erakunde antolatzaileek eta parte-hartzaileek nahitaez bete beharko dituzte erregelamenduko arauak; horiek 1. artikulua aplikazio-eremuan jasotzen dira. Antolatzaileak araudi honetako **puntu, artikulua edo atalen bat betetzen ez badu**, lehiaketa horren edo etorkizuneko lehiaketaren **antolakuntza esleitu zaion klubari eginkizun hori baliogabetu ahal izango zaio**; kasu horretan, AEF bera edo hala nahi duen beste edozein klub arduratuko da horiek antolatzeaz.



Kasu honetan, SAARVI klubak behar bezala aitortu du –AEFk ere hala frogatzen duten mezu elektronikoak gehitu ditu– Arabako 1. Liga Txapelketan deialdiari buruzko datuak AEFri astebete beranduago igorri zitzaizkiola. AEFren erregelamenduko 3.4 artikularen e) puntua bete ez denez, eta erregelamendu horretako 9.2 artikuluari jarraikiz, esleitutako klubari lehiaketa hori edo etorkizuneko lehiaketak antolatzeko eskumena baliogabetu dakioke, eta, beraz, AEF bera edo beste klub bat arduratuko litzateke horiek antolatzeaz.

Horrenbestez, SAARVI klubak Arabako 1. Liga Txapelketaren deialdian erregelamendua bete ez duenez, AEFk, erregelamendua aplikatuz, lehiaketa hori edo etorkizuneko lehiaketak antolatzeko eskumena baliogabetu ahal izango dio SAARVI klubari. Egintza horrek ez du esan nahi, errekurtsogileak dioen moduan, zigor bat ezarriko zaionik, indarrean den araudiari jarraikiz, horrek txapelketa-antolatzailearen ez-betetze bati erantzuten baitio.

d) AEFren erregelamenduko 9.2 artikuluan zehaztutako ez-betetzera aurreikusitako ondorioa aplikatzeko eskumenari dagokionez, lehiaketen antolakuntza-banaketa Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak proposatzen duela argitu behar da, Batzar Nagusiak egutegia onartzean berretsi egiten duen arren. Izan ere, Batzar Nagusiari dagokio, Federazioaren gobernu-organo gorena den heinean, lehiaketa ofizialen egutegia onartzea (16/2006 Dekretuaren 74. artikuluko e) letra); dena den, Zuzendaritza Batzordeari dagokio, administrazio-organoa izanik, federazioaren gaien administrazio- eta ekonomia-kudeaketa funtzioak gauzatzea, eta Batzar Nagusiak emandako zuzentarauei jarraikiz garatu beharko ditu gainera. Federazioaren erregelamendua Batzar Nagusiak onartu duela kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak, federazioari dagozkion gaien administrazio-organo gisa, eta erregelamendu horretako 9.2 artikuluekin bat etorritz, SAARVI klubari lehiaketa hori eta etorkizuneko lehiaketak antolatzeko eskumena kendu ahal



izango dio, Arabako 1. Liga Txapelketaren antolakuntzan egindako ez-betetzea dela-eta.

Hirugarrena.- Gertakarietan azaldu den moduan, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen 2017ko urtarrilaren 19ko Erabakiaren bidez, Arabako Esgrima Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen 2016ko abenduaren 23ko erabakiaren zuhurtziazko zigor-eskaera balioetsi zen, eta, beraz, 2016-2017 denboraldian zehar Sala de Armas de Vitoria klubari lehiaketak antolatzeko eskumena baliogabetzea erabaki da.

Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 17.4 artikulua arabera, «*Erabakitako kautela-neurriak indarrean egongo dira espedientea izapidetzen den bitartean, harik eta behin betiko ebazpenaren bidez berretsi edo bertan behera uzten diren arte (...)*».

Horrenbestez, eta errekurtsua ebatzi ostean, hartutako kautelazko neurria ondoriorik gabe uztea erabaki da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

EBAZTEN DU

1.- SAARVI esgrima-klubeko presidente **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Arabako Esgrima Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen 2016ko abenduaren 23ko erabakiaren kontra jarritako errekurtsua ezestea. Haren bidez, SAARVI Klubari 2016-2017 denboraldian zehar lehiaketak antolatzeko eskumena baliogabetzea erabaki zen.

2.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen 2017ko urtarrilaren 19ko Ebazpenean erabakitako zuhurtasunezko zigorra goratzea eta ondoriorik gabe uztea.



Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 23a.

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea